



TOLOSAKO NESKEN PILOTA ESKOLA, ABIAN

Ikastaroan izena emateko epea hilaren 6tik 9ra bitarte izango da Gipuzkoako Federazioan; iaz 8 neska aritu ziren >4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2008-09-03

VIURTEA 1.524.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Igarondo Merkatarien Elkarteko ordezkariak atzo aurkeztu zuten bigarren stock azoka. E. EZBIZA

«PAGOTXAREN BILA» IGARONDOREN STOCK AZOKAN

TOLOSA Merkatari elkarteak antolatu du datorren astebururako, hilaren 11n eta 12an; Beotibar pilotalekuan izango da bigarren goz 6

Hodeiartzen gaurko eta atzoko kideak, kontzertuan

TOLOSA Bihar ariko dira San Frantzisko elizan; Abesbatza Lehiaketako kartela erakutsiko dute 7


AHTren zundaketak egiteko baimenik ez dute eman lurjabeek

ANOETA Udaletxean Tyspa enpresakoekin izan ziren atzo, baimenak eskuratu nahi zituzten eta 3

IMANOL ALTUNA
ERREMONTISTA

«Agurra dakidan bezala egin nahi nuen, jokatu, pilotalekuan»

AMEZKETA Profesioaletan azken partida jokatu du bihar Galarretan 5



N. URBIZU

digitala
h
@

Datorren urriaren 10ean, ostirala, 12:00etan
GARBINE BIURRUN
epaile tolosarrarekin elkarrizketa digitala

HITZAren erredakzioan izango duzue zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidal ditzakezue.



Z **Zurea da hitza**

Atal honetan zuen kexak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue aukeran: Interneten, 'www.tolosaldeko-hitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atala erabiliz; e-mail bidez, 'tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info' helbidera bidaliz edota 943 65 56 95 telefono zenbakira deituta.

**Giro ezin hobea
Ernioko erromerian**

Pasa den igandean Ernio egon nintzen, irailko azken erromerian. Kriston giro ona egin zuen eta gainera jende pila batigo zen Ernioraino. Argazkitxo bat bidaltzeazue.

Maddi.

**Ikastaroa gehiago
ordaindu behar dut**

Tolosako udal ikastaro bat egiteko izena ematera joan naiz Kultur Etxera eta iaz bezala, aurten ere, Tolosaldekoena ez den prezioa ordaindu behar dut. Hiru urte daromatzat Tolosan lanean, goiz eta arratsalde; nire herrira lo egitera joaten naiz soilik, besterik ez. Erosketak ere hemen egiten ditut, pentsa. Nire herrian ez dago ikastaro hau egiteko aukerarik eta horregatik herritik kanpo egin behar dut. Tolosaldekoek baino 80 euro gehiago ordaindu behar dut, hemengoak ez naizelako (hemen errodututa ez nagoelako). Ulertzen dut Tolosaldekoei abantailen bat ematearena, baina ez dut horrela ikusten neurri hau: abantaila baino, diskriminazioa ematen du besteekiko. Esan beharra dut ere, ikastaroko jendetaldia ez dela talde handia, hau da;

ez da taldea maximora iritsi dela edo itxaron zerrenda bat dagoela. Epez kanpo ez dut izena eman ere... Dena besteek bezala egin dut.

Tolosaldekoei abantaila ematez atzeratzen, adibidez, ekitaldi kulturalak daudenean beharrenez bat izatea, eta halako gauzak, baina neurri hau ez zait justua iruditzen. Gainera, kanpotik gatzonoi esfortzu handiagoa suposatzen digu etortzeak, gero etxera bueltatu behar garelako (Tolosaldekoekin kanpo joan behar gara).

Ba horixe nire kexa. Uste dut, planteatzeko behintzat, badela.

Ikasle bat.

**Bedaion festa balantzea
gingo dugu larunbatean**

Asteburu honetan urtero egin ohi dugun eran, festa ondorenen afaria egiten dugu.

Festetako balantzea jendeari adierazi, izan diren gorabeherak aipatu, proposamenak entzun... Nolanahi, modu batean edo bestean, bakoitzak ahal izan duen eran emandako laguntzarengatik esker ona ere adierazi nahiko genuke.

Hori dela eta, larunbatean 21:00etan bilduko gera Artubi elkartearen mahaiaren bueltan.

Bedaio Artubi elkarte.

G Gutunak**EITBko Programazioaren
Itzulpen Politikak**

Telebistan orohar eta EITBn bereziki dagoen ITZULTZE politikaz aritzeko da testu hau izan ere, ez deritza ot egoki gaur egun oraindik film, dokumental, serie edo marrazki bizidun oro itzulita ikusteari.

Urte askoan gauzak egiteko beste modurik ez zela pentsatzen zuen milaka ikusle horietako bat nauzue, zeinari guztia "egina" eman zaion itzulketak eta hizkuntza kontuan eta ondorioz zail edo ulergaitz inguruetan litzaioteko bertsio originalean eta subtitulaturik gauzak ikustea.

Izan da ordea aldatzeko enee biziaren, Erasmus programaren barruan atzerriera aterata baino (Slovenja-ra konkretuki) eta begiak ireki baizaizkit. Han, sinestein badirudi ere, ingelesaren jakintza zabal eta finkatu bat aurkitu dut jendeagan (40-50 urtetik behar batetik bat) eta baita beste hizkuntzak ikasteko erreztasun eta grina ere.

Egia esan, anitz dira arrazoiak, estatu txikia izaki kanpo harremanen garantzia eta ondorioz atzerriko hizkuntzen ezinbestekotasuna; turistikoki garatutako herrialdea izaki, hauei arrera egiteko zerbait hizkuntzaren komenigarritasuna; Yugoslavia oiaren garaietatik datorren hezkuntza maila aipagarria eta atzerriera joateko interesa; baina batik bat, telebistaren etorrera eta bertsio original subtitulatuaren eragina.

Ingelesez bikain mintza zaizkidanak asko izan dira ikasketak bereziki gabe, aurrez sekula atzerrian

izan gabe edota atzerriarrekin kontakturik izan gabe, soilik telebistan egunero entzuten eta ikusten dutena medio eta gure inguruko batezbestekoa ikusita, azentu eta bokabulario aipagarri. Ez dira izan bat edo bi bakarrik gaztelaz entzun ditudan telebistako telebela ikusteagatik soilik ikasita eta gauza bera beste zenbait hizkuntzarekin.

Ez dut ikerketarik edo oinarri zientifikorik hau baieztatzeke, baina ziur nago telebistan aurki dezakegun hizkuntza berraztertzeko gai gurea nahi edo nahigabe, galde bestela ni bezala herri guztiz aukaldunetan hezi garen gazteoi, ia Baxillergorarte geure erdararekiko kontaktua zuzen bakarra Telebista izan denean eta halere edo zer ulertzeko gai garenean. Espainiar estatuaren ematen den itzulte politikak hasieran onura egin arren (gauza anitz ulertzeko erreztasuna hasieratik) luzera kalte egiten digula erantzotzen da hangoa aldatzerik ez badago ere, Euskadi mailan ahalegin bat egin behar litzatekeela uste dut. Zergatik bestel arri izan espainiarrekiko, "bilibguae" garelako euskaldunok, emendik aterata bezelaxe jendeak 2-3 hizkuntza eres dominatzen baditu? Non dago gure Europako Probintzia izateko grina, ez bagarea ingelesez mintzatzeko eta Europar hoierei arrera egiteko gai?

Interesgarria da ikustea Ingelesaren irakaskuntzari umetatik irakasteari ematen ari zaion garrantzia eta egunerokotasunean duen isladak apala. Pentsatzen jarrita gainera, ez al da arraroa ikustea zenbat diru gastatzen den itzulpen

lanetan subtitulatuak egin ordez? Gure EITBren kapital mugatua ez al litzateke beste gauza batzuetara zuzendu beharko agian?

Ustez egin dira filmak bertsio originalean jartzeko ahaleginak, baita audientzia faltagatik porrot egin ere. Eskaria txikia delako eta jendeak telebistaren aurrean jartzean nahi duena, esfortzurik EZ egitea omen delako (are gutxiago hizkuntza bat ulertzen). Nire ustez ordea hau ez da gauzak enfokatzeko modu ezegokiaren ondorio baina.

Ezin dezakegu egun batetik besterako aldatzea drastikorik eman benetako behar bat eta kontzientzia sozial bat ez badago, baina pisikanaka gauzak aldatzen joan gaitzke sustraietatik hasten bagara. Esate baterako, aurrek duten ikasteko erreztasuna ikusirik, ez al genuke interesgarri euren zuzenduriko programazioa jatorrizko bertsio subtitulatu jartzetik? Ez ote da posible marrazki bizidunak ingelesez ikustea, eta urteak aurrera joan eina telebista serie onen bat ere jarzea? Ez ote gara gai izango 10-15 urtera begira gauzak aldatzeko?

Badakit hau, ein batean gauzak "behartzea" dela, baina heziketan beti izan oi dira haurrak "bideratzeko" ekintzak, eta askotan ez dute zertan "bortxatuak" sentiturik. Are gehiago, eta esperientzia pertsonal moduan esan dezaket nirekin han izan diren euskaldun guztiok bat gertozela zera esatean: zergatik ez ote genuen geuk ere telebista bertsio originalean? Errezagoa eta osoago litzateke orain gure atzerriko esperientzia hau!

Bukatzeke eta errepikapenetan erori gabe, honekin esan nahi dudana zera da, orain jendea bapatean gauzak aldatzea zail izan arren, oraindik erreallitate osatzen ari zaian haur eta gazte hoien eragin dezakegula gauza oro ez itzuliz, besterik gabe. Ea era horretan, biharko egunean geure arazo berak izan ez ditzen eta datorrenaren aurrean beste prestaketa maila bat izan dezaten.

Eskerrak emanaz zuen lan eta arretagatik agurtzen naiz.

Garikoitz Bernaras Aranburu (Amezket).



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia)
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja
Talosa (Bellatokia)



Anoetako hainbat lurjabe, atzo, udaletxearen aurrean Typsa enpresakoekin bilera egin eta gero. I. GARCIA

Lurjabeek ez dute baimenik eman zundaketak egiteko

Anoeta » AHTren inguruan zundaketak egiteko baimenak eskuratzera joan ziren atzo Typsa enpresakoekin.

IMANOL GARCIA

AHTren proiektuak kaltetzen duen Anoetako lurren jabeek atzo goizean bilera izan zuten Typsa enpresako ordezkariekin udaletxean. AHT proiektuaren inguruan zundaketak egiteko baimenak eskuratzera joan ziren enpresakoekin, beste zenbait herritan egin duten bezala, baina lurjabeek ezeko eman zieten. Proiektuari buruzko informazio gehiago izan arte baimenik ez dutela emango azaldu zuten lurjabeek.

Ezezkoaren aurrean Typsako ordezkariak azaldu zuten beraiek proiektuari buruzko informaziorik ez dutela. Lurjabeek hartutako erabakia Eusko Jaurlaritzari helaraziko diotela azaldu zuten eta hauek jarriko direla beraiekin hurremanetan.

AHT Gelditu! Elkarlanetik salatu dutenez, Typsa enpresakoekin Udalarik ez diote lurjabeen zerrenda pasatu bilera hasi baino egun bat lehenago arte, Udalarik aurretik eskatu bazuen ere. «Bilerak banaka egin nahi zituzten lurjabeekin, baina hauek erabaki dute denak batera biltzea enpresakoekin», zehaztu dute Elkarlanekoek. «Bilerak banaka egin nahi dituzte presioa errazago egiteko eta baimenak lortzeko».

Anoetako Udala AHT proiektuaren aurka agertu da hainbatetan eta herritar batzuk bultzatuta herri galdetutan gehiengoak ezezkoa eman zion.

Bi gazte identifikatuta
Bilera egin bitartean Ertzaintzaren furgoneta bat eta Guardia Zibilen bi patruila izan ziren Anoetako plazan. Guardia Zibilak bi gazte identifikatu zituen, «begira ari zirelako». Horieta bati sudadera kendu zitoten, bertan Segiren irudia agertzen zelako, «Ertzaintzaren aurrean hori jarria izatea probokazioa delako», guardia zibilek esan zituzten.

Elkarlanetik salatu dute bilera hauen inguruan izaten den «presioa poliziala» eta Anoetan kalez jantzitako polizia ere izan zela azaldu dute.

Pilota Festa «arrakastatsua» antolatu dute Behar-Zanakoek

Villabona » Guztira 17 partida jokatu ziren eta bertan 6 eta 12 urte bitarteko 68 pilotarik parte hartu zuten.

ERREDAKZIOA

Beha-Zana elkarteak Pilota Festa antolatu zuen aurreko larunbatean eta antolatzaileek azaldu dutenez, «arrakastatsua» izan zen. 17 pilota partida jokatu ziren guztira eta horietan 6 eta 12 urte bitarteko 68 pilotarik parte hartu zuten. Giro onean Iruñeko Oberena elkarteak beste haurrekin pilotan jolasteko

aukera izan zuten. Partidak jolastu eta gero, bi taldeen armarririkin osatutako kamiseta bana eta Behar-Zanako pegatina batzuk eman zitzaizkien. Festari amaiera eman zioten Behar-Zana elkartearen bazkaria ginez.

Lau partida asteburuan etxean

Bestalde, asteburu honetan Behar-Zanakoek lau partida jokatu dituzte Amasan. Gaur, 21:30ean hasita, bi partida jokatu dituzte. Lehenengoa Ander Aranburuk buruz buru jokatu du senior mailan Ozkarbi (Elgeta) taldeko pilotariaren aurka. Ondoren, kadete mailan eta binaka, Kepa Na-

zabalek eta Jon Ander Artazak beraien partida jokatu dute Añorgakoan aurka.

Larunbat goizean, 11:00etan hasita, beste bi partida izango dira ikusgai. Lehenakadeteen bigarren mailakoan Iñaki Otaegi eta Mikel Otañok Hernaniko taldekoen aurka jokatu dute eta ondoren kadeteetan ere baina hirugarren mailakoan, Unai Otaegi eta Mikel Etxarrik Lapke (Lazkao) taldearen aurka jokatu dute.

Senior mailako Iñaki Lizasok eta Pebetek aste honetan Añorgan jokatu dute eta Iraeta-Arretxe bikoteak atsedena du aste honetan.



Villabonako Udalbatzak herenegun egindako osoko bilkuraren une bat. HITZA

Ilegalizazioen aurkako itxialdiak, gaurtik biharrera

Politika » Adunan, Anoetan, Tolosan eta Villabonan egingo dituzte; elkarretaratzeak egingo dira hainbat herritan.

ERREDAKZIOA

Ezker abertzaleak hainbat herritan itxialdiak egingo ditu udaletxeetan azken asteetan egin diren ilegalizazioak salatzeko. Adunan, Anoetan, Tolosan eta Villabonan izango dira itxialdiak.

Adunan gaur 16:00etan sartuko dira udaletxean eta bihar eguerdira arte izango dira bertan. Elkarretaratzea ere egingo dute hilaren 9an, osteguna, 19:00etan plazan. Anoetan gaur 19:30ean elkarretaratzea egingo dute plazan eta ondoren itxialdia hasiko dute bihar eguerdira arte. Tolosan gaur 20:00etan hasiko dute itxialdia eta bihar eguerdira arte izango dira. Itxialditik ateratzerakoan giza katea egingo dute. Villabonan gaur manifestazioa egingo dute 20:00etan plazatik abiatuta eta ondoren egingo dute itxialdia bihar eguerdira arte. Ezker abertzaleko hautetsiek deia zabaldu diete herritarrei itxaldietan parte hartzeko.

Elkarretaratzeekin jarraituz,

@ Inkestak eta eskualdeko kilometroetako bideoak.

HITZAren webgunearen ataleko bat da inkestena. Webgunean agertzen den azkeneko inkestak honela dio: «Udazkenean ekitaldi kultural asko egiteko ohitura dago: esaterako, Kultur Asteak. Beharrezkoak ikusten al dituzte?». Orain arteko erantzunak hauek izan dira: Bai (%54), ez (%23) eta ekitaldien arabera (%23). Inkestetan botoa emateaz gain, gaiari buruz ere iritzia emateko aukera dago. Bestalde, bideoak atalean, eskualdean egin eta egingo diren kilometroak jaien bideoak daude ikusgai. Hain zuzen, 1998an Tolosan egin zena eta igande honetan Iruran egingo dena.

www.tolosaldeko HITZA.info

Amezketan gaur egingo dute 19:30ean plazan eta Ikaztegiaren bihar egingo dute 13:00etan udaletxearen aurrean. Bestalde, Bilbon egingo den manifestazio nazionalera joateko autobusak antolatu dira. Amezketan eta Tolosan ohiko lekuetan eman daiteke izena, Anoetan Itzuli tabernan eta Villabonan Iratzar tabernan.

Mozioak onartuta

Adunako, Anoetako eta Villabonako udaletan herenegun arratsaldean egindako osoko bilkuretan azken ilegalizazioak eta «salbuespen egoera» salatzeko mozioak onartu zituzten.

Adunan aho batez onartu zuten mozioa. Anoetan ezker abertzaleko sei hautetsik aldeko botoa eman zuten (hautesi bat falta zen) eta EAJren biak abstenitu egin ziren. Villabona, ezker abertzaleko sei hautetsiek aldeko botoa eman zuten, Ezker Batuaren hautetsia abstenitu egin zen, PSE-EEkoak ezezkoa bozkatu zuten eta EAJren hautetsirik ez zen azaldu osoko bilkurara.

Besteak beste, onartutako mozioan aldarrikatzen denez, «indar politikoguztiek Euskal Herriko bitzita politiko, sozial eta kulturalen berdintasun baldintzetan parte hartzeko eskubidea dute».

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zerbitzaria.** Lanaldi erdira eta igandeak jai izango dituen espezializadun zerbitzari neska edo mutila behar dugu. 680 10 39 59 eta 635 75 25 23.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuek deitu: 657 23 00 11 edo 634 91 94 82.

■ **Telebista.** Telebista saltzen dugu, Panasonic 32", plana. Urte eta erdi dauka. 637 47 48 23.



hitza

ere kilometroetan

udazken-neguko materiala
SALGAI
Irurako plazan



harpidedunentzat prezio bereziak:
ekarri zure harpidetza txartelak!

Heldu, gazte nahiz txikienentzat
zirak, jertseak, elastikoak eta hainbat osagarri.



Regina Otaolak ETAk hildako Ramiro Quintero omenduko duela esan du

Lizartza » Ez du data zehaztu, nahiz eta hilabete honetan izango den; atzo izan zen hilketaren 30. urteurrena.

ERREDAKZIOA

Regina Otaola Lizartzako alkateak atzo ohar baten bidez argitu zuenez, guardia zibila izandako eta bazoaina zela Lizartzan bizi zen Ramiro Quintero Avila omenduko dute herrian. Izan ere, ETAk Quintero Lizartzan hil zuela 30 urte bete ziren atzokoan.

Otaolak, hala eta guztiz ere, ez zuen argitu noiz izango den omenaldia, nahiz eta hilabete honetan izango dela baieztatu zuen. Ekitaldia terrorismoaren biktimen elkartei, herritarrei eta alderdi politikoei irekia izango dela ere argitu zuen alkateak.

Konpromisoa

Otaolak adierazi zuenez, «Ramiro Quinterori justizia egiteko ordua da», eta halaber, legealdia ren hasieran «horrelako omenaldiak egiteko konpromisoa» hartu zuela gogoratu zuen.

Otaolaren hitzetan, omenaldia «beharrezkoa» da gertaera hura gogoratzeko. «Ekintza hau ETAk guardia zibila eta Espainia ordezkatzeko duen guztiarekiko duen gorrotoaren» adierazle garbia dela gaineratu zuen.

PPko kideak, era berean, hilketak «sanahi politiko» argia du eta honek Ramiro Quintero ET Aren terrorismo hautakorraren biktima bihurtzen du, nahiz eta biktimak ez zekien hiltzaileen objektibo zenik», esan zuen. Otaolaren hitzetan, «justizia egiteko ordua» da. «ETAk ez zuen Quintero hil inongo bidegabekeriarik egin zuelako, terroristek epaileen eta odolzalzen papera hartu zuten eta buruan tiro eginez euren epaitza ezarri zuten beste behin ere».

Gogoratu behar da orain urtebete Otaolak eskainitako prentsurreko bakarrenetako batean ere aurtzen omenaldia egiteko asmoa zuela argitu zuela.



Pasa den ikasturtean Nesken Pilota Eskolan aritutakoen irudia. HITZA

Tolosako Nesken Pilota Eskola, berriz ere martxan

Ibarra » Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak, Pilota Aniztasuna KEEK eta Ibarako Sendi Ekintzak bultzatutako ekimena da.

ERREDAKZIOA

Orain lau bat urte abiarazitako Emakumea Pilotari proiektuaren barnean Tolosako Nesken Pilota Eskola abiraraziko dute aurtengoan, berriz ere. Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak, Pilota Aniztasuna KEEK eta Ibarako Sendi Ekintzak bultzatutako ekimena da eta 10 eta 16 urte bitarteko neskei zuzendutako eskaintza da. Iazkoan zortzi neska aritu ziren eta ekimeneko bultzatzaileek diotenez, «benetan gustura» amaitu zuten ikasturtea. Aurtengoa hirugarren ikasturtea izango da.

Ikastaroan izena emateko epea hilaren 6an, datorren astelehenean, hasiko da eta hilaren 9an amaituko da eta Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioan egin behar da, bertako telefono zenbakia 943 47 14 63 delarik. Ikastaroak astearte,

ostegun edo ostiraletan izango dira eta izena ematerako garaian zein egun nahiago den argitu behar da. Eskolak Ibarako San Inazio auzoko frontoian izango dira eta azarotik ekainera bitartean iraugo dute. Hilabete bakoitzako kuota 9 eurokoa izango da.

Era berean, Emakumea Pilotari proiektutik argitu dutenez, izena emateko Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa jo nahi ez duenak beste biderik ere izango du; neska toen ikastetxetan jasoko dituzten euskuorriak bete eta berriz ere ikastetxeko eskola kiroleko koordinatzaileari, beha bezala beteta, itzultzea.

Pilota mundura gerturatzea

Arestian aipatu bezala, hirugarren urte antolatzen dute Emakumea Pilotari ekimena gurean. Helburua orain arte nagusiki gizonetakoena izan den pilotaren eremura emakumeak gerturatzea da eta poliki bada ere badirudi ari direla lortzen. Ikasturte amaieran, gainera, Emakumea Pilotari eguna ospatu ohi dute, pasa den ikasturtean Iruran izan zena.

Laburrak

Oinen inguruko hitzaldiak antolatu dituzte

LEABURU-GAZTELU » Uli Mankomunitateak antolatutako *Pentsa dezagun oinek* hitzaldia hilaren 7an izango da Leaburuko liburategian eta 8an Gazteluko eskola zaharrean. Biak 17:00etan izango dira eta bertan oinen osasunaren inguruko argibideak emango dituzte.

Spinningeko eta pilateseko eskaintza zabaldu dute

IBARRA » Belabieta kiroldegia spinning eta pilates ikastaroek lortutako arrakasta ikusita hauen eskaintza zabaltzea erabaki dute. Pilates ikastaroa astearte eta ostegunetan izango da 17:30ean eta spinningena astelehen eta asteazkenetan 19:30ean.

NEREX
Lentzeria

Bodiak
Pijamak
Kamisoiak
Kamisetak
Baloiak
Pikardiak
Tangak

Erremontari Kalea, z/g • TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30

Imanol Altunak profesionalen azken partida bihar jokatu du Galarretan

Amezketak » Hasiera batean anaiaren kontra jokatu behar bazuen ere, ez da hala izango, Altuna II.ak beste partida bat duelako.

NEREA URBIZU

Bihar Imanol Altuna erremontistak erremonte profesionaleko azken partida jokatu du. Urrutiarekin ariko da Iñigo-Lizasoren aurka, 16:00etan hasiko den jaialdian. Anaiaren kontra jokatu zuela adierazi zuen enpresak hasiera batean, baina azkenean ez da

horrela izango. «Nikanaiaren kontra jokatu nahi nuen, baina ez da posible izango».

Altuna I.ak laren palmaresa

Altuna I.ak Binakako erremonte Txapelketa Ofizialeko txapela eskuratu zuen 2002an, Jon Eizagirrearekin batera. Txapelketa berean txapeldunordea izan da 7 alditan. San Fermin torneoaren ere eskuratu zuen lau urtetan. Hauenatik, erremonte jokalarionen artean kokatzen da Altuna I.a.

Imanol Altuna Aierbek 1987ko azaroaren lehen debutatu zuen, Galarretan bertan. Biziazaren erdia bai-

no gehiago darama jolasten. Lehenengo zestoak 11-12 urterekin oparitu zion lehengusu batek, eta orduan eskuz gehiago aritzen bazen ere, 15-16 urterekin eskuek asko sufritzen zutelarik izan zuten, eta zestoak hartu zuen orduan.

«Balantze positiboa»

Altuna I.ak berak bere ibilbideaz egiten duen balantzea «positiboa» izan da. «Agian, zorte pixka bat faltatu izan zait titulu gehiago irabazteko, binakako txapelketako zortzi finalerara iritsi bainaiz, eta bat irabazi». Egia da ere, «finalerara iristea seinale ona dela».

» PALMARESA

■ **Txapelduna.** Erremonte Txapelketa ofizialean 2002an.

■ **Txapeldunordea.** Erremonte Txapelketa ofizialean, 1992, 1993, 1994, 1995, 2001, 2006 eta 2007an. Zazpi aldiz.

■ **San Fermin Torneoa.** 1994, 1999, 2001 eta 2005ean, txapelduna izan zen.

Altuna I.ak joan den igandeko Amezketako omenaldian herriarrik Galarretara joatera gonbidatu zituen. Joateko asmoa duenak Sasurainen lor ditzake txartelak.

«Agurra jokatu egin nahi nuen; kaleko arroparekin ez nuen pilotalekura atera nahi»

IMANOL ALTUNA » Erremontista

Erremontea » Bizi erdia baino gehiago erremontista profesionala izan da, eta orain erretiratzeko unea iritsi da.

N. URBIZU

Profesionalen mailan 21 urte egin zituen azaroaren lehen 19 urterekin debutatu zuen erremontean. Bihar ikusiko dugu azken aldiz Galarretan profesionalen mailan zestoak eskuan duela. Imanol Altunak (Amezketak, 1968) «penaz» utziko du bere biziaren parte garrantzitsua izan den alde hori.

Enpresaren erabakia izan da alazuk hala nahi izan duzu?

Enpresaren erabakia izan da. Erremontea ez da garairik onenak pasatzen ari, eta Galarreta behar du. Astean lau jaialdi egiten dituzte eta askotxo da. Igandekoa zalan-tzan daukate eta agian kenduko dute. Jaialdi bat kenduta, pilotariak ere kendu behar dira eta garbiketara egin dute. Gainera, jende berriari ere lekua egin behar zaio.

Aurrekoan zenion erremontea ez



N. URBIZU

dagoela bere momenturik onenean.

Ez dago momenturik onenean, baina erremontista onak daude: zentzu horretan ez dut arriskurik ikusten. Etorkizuna ez da txarra.

Pena, ezta?

Pena ematen dit, bizi guztian horretan aritu naizelako, 21 urte egin ditut ia profesionaletan. Gainera, gero eta zailagoa da 40 urtetik gora izandako jokatzea: ikusten zen niusuzmagarrietako bat nintzela. Baina egunen batean iritsi behar zen.

Galarretan azken partida bihar.

Nik despedida nahi nuen baina jokatu, kaleko arroparekin ez nuen frontoira atera nahi. Enpresak zerbait, oroigarri bat, edo dena delakoa eman behar badit, eman diezadala, baina jokatu.

Amezketako omenaldia nola goratzen duzu?

Oso detaile polita izan zen, ez zaigu inoiz ahaztuko. Gutaz hitz egingo da, bi anai erremontista izan zirela herrian.

Anaiaren botillero izango zinateke?

Zergatik ez... Erremontean banaka jokatzen denean botilleroa izatea eskertzen da. Aurreko batean Garrikotzekin egon nintzen eta botilleroaren lana egin nuen.

Zer esango zenioke erremontean hasiko den horri?

Gustuko duelako jolas dezala eta ez behartuta. Erremontearrekin gozatzeko eta ilusioa ez galtzeko inoiz. Batzuetan memento txarrak pasatu behar dira eta gehiago kostatzen da, baina ilusioa ez da inoiz galdu behar. Ni bihar ere dena ematera aterako naiz Galarretara.

Laburrak

Aurrera-Saiazen partidak, gaur eta bihar

PILOTA » Gaur Aurrera-Saiaz pilota eskolako kadeteak, jubenilak eta seniorrak ariko dira, Ibarra pilotalekuan 19:00etatik aurrera (Zelai-Elustondo, Eola-Galarra eta Pikabea-Galarra). Alegian 20:00etan partida bat jokatu dute Apezteak eta Arratibel jubenilek, Hernanikoen kontra. Bihar, berriz, Tolosako Beotibarren 10:30ean 3 partida jokatu dituzte seniorrek. Gaizki ulertuak direla medio, Ibarra eta Alegian jokatu behar zirenak (urriaren lehen eta 2an) ez dira jokatu; gaurkoak eta biharakoak dira.

Gasteiz bisitatuko dute jubilatuak, ostegunean

IKAZTEGIETA » Hilaren 9an, jubila-tuentzat bidaia bat Gasteizera antolatu du Ikaztegieta Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Irteera 09:00etan izango da, udaletxe ondoko zubitik. Estibalzik mo-nastegia bisitatuko dute, gosalduek ondoren Gasteiz hiria, Andra Mari Plaza, Florida Parkea eta abar ikusiko dituzte. Bazkaldu ondoren, arratsalde libre izango dute Gasteiztik ibiltzeko. 20 euro ordaindu beharko du bakoitzak. Izena emateko epea asteartean itxiko da.

Zazpi-Isturri ere Probitziazalean hasi da

PILOTA » Amezketan Gipuzkoako Klubaren arteko Txapelketako norgehiagokak izango dira, gaur, 20:00etan. Banaka kadeteak lehenengo izango dira eta Alegiak In-txurreren kontra ariko dira. Binaka kadeteen mailan Zazpi-Isturri eta Aurrera-Saiaz ariko dira. Ondoren, banaka nagusiak Urrietako nagusia izango du aurrez aurre. Binaka, berriz, Hernani joango da Amezketara. Azkenik, binaka Zazpi-Isturriko bi bikote ariko dira.

Kilometroetako arropa salgai datorren astean

TOLOSA » Kilometroak jaialdirako egin den arropa Tolosako Kale Nagusiko dendan ere eros daiteke. Denda hau asteazkenetik aurrera irekiko dute arratsalde, 17:00etatik 20:00etara bitartean.


zure-irragarkia tolosaldetik eta leitzaldetik euskal herrira

tolosaldeko hitza. iragarkilaburrak.com

iragarkia jartzeko: www.tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com/ 943-65 56 95/ Araba etorb. 5 atzea • Tolosa / Herriko plaza 1 • Leizta webgunean, ostiralero Euskal Herri osoan paperezko edizioan eta HITZA egunkarian argitaratuko da

iragarkilaburrak.com

euskarazko iragarki baburaren ataria



Sormen tailerra antolatu du helduentzat, Tolosaldean Ikastn-ek

Hezkuntza » 25 urtetik gorakoei dago zuzenduta eta «barneko sortzaile potentziala piztea» du xede.

ERREDAKZIOA

Tolosaldean Ikastn-ek Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntza zerbitzuak sortze-literaturari buruzko tailerrak antolatu ditu. Mintegi honen helburua ikasleei oinarri sendo bat eskaintzea da, barruan daramaten sortzaile potentziala piztera bultzatzeko eta idazketa mundura murgiltzearen beldur-erakuzatzeko.

25 urtetik gorakoei zuzenduta dago ikastaro hau, eta gaztelaniaz emango da. Astelehen, astearte eta asteazkenetan izango dira eskolak, 16:30etik 19:30era. Denera, tailerraren iraupena 18 ordukoa izango da, eta datorren astelehenean emango diote hasiera. Saiok Errota Haur liburutegian izango dira. Izen-ematea telefono bitartez edo internetez egin daiteke: 615 77 56 78ra deituta edo www.ikastn.com helbide elektronikoan.

Urriko zine saioetarako prezio oso baxuko abonoak atera dituzte

ERREDAKZIOA

Zinea sustatzeko asmo horretan, berriro ere bonuen sistemajari du martxan Udalak. Hala, urriko film-etaerako abonoen salmenta ondorengo egun ordu eta lekuetan egingo da. Leidor antzokiko leihatilan, ostegunetan, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Asteburutan berriz, zine saioen ordutegietan.

Abono erosten dutenek zine saioetara joateko beharrezkoa izango dute leihatilatik pasa eta sarrrera jasotzea (kosturik gabekoa). Bestalde, agertutakoaren arabera, zinemako arduradunek eskertuko lukete, kasu hauetan, leihatilatik garaiz pasatzea azken orduko ilarak sailhesteko. Dena den, leihatila berezi bat irekiko dute abonoduntzat, «beharrezkotzat» jotzen duten saio guztietan. Edozein saioetara joan nahi dutenentzat, abonoen prezioa 12 eurokoa da. Gauekoetara bakarrik joan nahi dutenentzat berriz, 8 euro. Baita ikuslearen egunean ere. Azkenik, gazteek prezio berezia izango dute, 6 euro, hain zuzen ere.



Igarondo Merkatarien Elkarteak ordezkariek atzo aurkeztu zuten bigarren stock azoka. ESTI EZEIZA

Kalitatezko produktuak prezio ezin hobean erosteko aukera, Stock Azokan

Ekonomia » Igarondo merkatarien elkarteak bigarrenentzat antolatu du hau; hilaren 11 eta 12an izango da, Beotibar pilotalekuan.

ESTI EZEIZA

«Maukak, pagotxak eta aukera paregabeak» aurkituko dituzte datorren asteburuan Beotibar pilotalekura hurbiltzen direnek. Duela bi urteko esperientziari jarraipena emanaz, bigarren Stock Azoka antolatu du Igarondo Merkatarien Elkarteak.

Lehendabiziko azokak izan zuen arrakasta ikusita oraingoan ere, elkarteak denda gehienek hartuko dute parte. Factoringak 10:00etan irekiko ditu ateak, hilaren 11n, eta 20:00ak arte egongo da zabalik. Igandean berriz, hau da, hilaren 12an, 10:00etan zabalduko da, eta 18:00etan itxi.

Beotibar, saltoki handi bilakatuko da berriro

Duela bi urteko irudia errepikatuko da Beotibar frontoian. Datorren asteburuan pilotalekura gerturatzeko diren pertsonen 15 stand edo erakusmahai aurkituko dituzte. Moda, osagarriak, ume-arropa, barruko-arropa, bisuteria eta kirol arloko dendek hartuko dute parte.

Egun hauetan, marka oso ezagunetako produktuak erosi ahal izango dira prezio oso baxuan.

» AZOKAN PARTE HARTUKO DUTEN SALTOKIAK

- Pottoko.
- Kanikak.
- Top & Top.
- Mugar.
- Pasaban.
- Aralar kirolak.
- Roncal.
- Poxpolin umeen arropa.
- Txalo-txalo.
- K. A. Internacional.
- Oski.
- Oskí gaztea.
- Tantai.
- V. P. Tapizegia.
- Tipi-ttapa.

Hala nola, etxe hautako arropak eta materialak izango dira: Roxy, Quick silver, Kenzo, Billabong, Clavin Klein, Beste bat, Boboli, IKKS, Miss Sixty, DKNY, Nicola, Giulio...

Igarondo elkartearen esanetan, azoka honen helburua da, alde batetik, «parte hartzen duten denden biltegiak hustutzea», eta bestetik, «Tolosako merkataritzaren jarraipena posible eginen duten bezero zintzoei artikulu hauek oso prezio onean eskaintzea». Honez gain, Tolosaldeko eta beste eskualdeetako bezeroak Tolosako dendetara erakartzen saiatu nahi dute.

Bigarren aldi honetan, aurkegon gertatu zen bezala, arrakasta handia izatea espero dute Igaron-

dokoek. Hala, atea irekitzen den momentu beretik Beotibar pilotalekuko sarreraren kanpoaldean jendetza eta ilara luzeak egotea espero dutelarik.

Arrakasta errepikatzeko asmoz

Duela bi urte, 2006ko irailean, lehen stock azoka antolatu zutenen, Igarondokoek adierazi zuten, ez zekitela jarraipenik emango zioten edo ez. Baina, bi urte igaro ondoren esperientzia errepikatzea erabaki dute. Merkatarien elkartearen esanetan, «moda oso azkar doa, eta askotan ezin dugu jarraitu, ondorioz, hainbat gauza biltegiaren geratzen zaizkigu». Hori dela, eta honi irtenbide bat ematearren, eta aldi berean, bezeroei «opari» bat egiteko asmoz, bigarrenari ekin diote.

Igarondokoek atzo egindako aurkezpenean azaldu zuten ere, askotan, «stock azoketaz hitz egitean, jendeakuste duela modaz pasatuko arropen ari garela, baina ez da horrela». Beotibar pilotalekuan, bi urte hauetan bildutako arropa eta materiala jarriko da salgai. Dendarien esanetan, «kasu askotan, pena handia ematen digu horren merke saldu beharra, bere balioa askoz ere handiagoa baita. Baina, erabaki beharra dago, eta ia pentsatu gabe, azokara bidaltzeko banatzen ditugu». Dagoeneko hasi dira prestatzekin, eta azokarako jantziak gordetzen.

K Kirol jarduera

Bihar

Areto futbol

■ Usabalgo goiko kantuan, 10:00etatik aurrera, jubenilen mailan, Laskorain eta Laubururen arteko partida jokatu da.

■ Usabalgo goiko kantuan, Nazional B mailan, Laskorain eta Anclan Dosanport izango dira aurrez aurre, 16:00etatik aurrera.

Saskibaloia

■ Kadete nesken mailako partida jokatu da Usabal kiroldegiko goiko kantuan. TAKE eta Axular aurrez aurre izango dira 12:00etatik aurrera.

■ Usabal kiroldegiko goiko kantuan Nazional A mailako partida jokatu da. 18:00etan hasiko da TAKE eta Getxokoaren norgehiagoka.

■ Usabal kiroldegiko beheko kantuan, 16:00etan, junior mutilen mailan, TAKE eta Easo izango dira aurrez aurre.

Eskubaloia

■ Senior mailako partida jokatu da Usabal kiroldegiko beheko kantuan 18:00etatik aurrera. Tolosa eta Elgoibar izango dira kantuan aurkari.

Gimnastikako gela

■ 16:30ean, mahai teniseko partidak jokatu dira. Tolosakoek Irun Lekaneakoak izango dituzte aurkari.

Futbola

■ Berazubiko zelaian, 16:30etik aurrera, gorengeko mailan jokatzen duten Tolosa CFkoak eta Berriokoak izango dira aurrez aurre.

■ 10:30ean, Usabalgo futbol zelaian, infantil txikietan, Tolosa CFkoak Elgoibarkoaren aurka ariko dira.

■ 15:30ean, Usabalgo futbol zelaian, emakume seniorren mailan, Tolosa CFkoak ariko dira Lazkaoen aurka.

■ 17:30ean, Usabalgo futbol zelaian, lurraldekako bigarren mailan, Amarozen eta Ordizia izango dira aurrez aurre.

Rondilla kaleko aparkalekuak inauguratuko dituzte gaur, 12:00etan

ERREDAKZIOA

Gaur eguerdian Rondilla kaleko aparkalekuak inauguratuko dituzte. 12:00etan hasiko da ekitaldia, eta bertan izango dira Udala ordezkariek.

Gaurtik aurrera 221 aparkaleku gehiago izango dira Tolosan. Lur azpian kokatuta dagoen eremu honek Belate auzotik izango du sarbidea. Aparkalekuetako batzuk auzokoentzat eta herritarrentzat izango dira, eta gainontzekoak, errota sistema bidez erabiltzeko izango dituzte.

Hodeiertz Abesbatzako gaurko eta atzoko kideak elkarrekin

Kultura » Kontzertua eskainiko dute, San Frantzisko elizan; Abesbatza Lehiaketako kartela erakutsiko dute.

INIGO TERRADILLOS

Hodeiertz abesbatzaren zilarrezko ezteien baitan, bihar kontzertu berezia eskainiko dute San Frantzisko elizan. Tolosako Ekinbide Etxeak antolatutako ekimen da, eta 20:15ean hasiko da.

Enrique Azurza abesbatzaren zuzendariak azaldu bezala, «oso kontzertu berezia izango da». Bi zatitan banatuko da: «lehenengoa, meza berritzaile bat eskainiko dugu, hain zuzen ere, Steve Dobrogosz suediarren *Mass* izango da. Biolina, biola, kontrabaxua, biolontxela eta pianoa, boskotea, beraz, lan honetan. «Jazz armoniarekin osatua dago, eta oso polita da», dio Azurzak. Kontzertuaren lehenengo zati honetan, Hodeiertz abesbatzako egungo partaideak ariko dira.

Bigarren zatia izango da bereziena, izan ere, abesbatza sortu zenetik gaur egunera arte igaro diren kide askok hartuko dute parte. «25.



Hodeiertz Abesbatzako egungo kideak eta garai batekoak bilduko dira biharko kontzertuan. HITZA

urteurrena ospatzen genuela eta zerbaite berezia egin nahi genuen, eta ahalik eta jende gehien biltzea oso interesgarria iruditu zitzaigun», azaltzen du Azurzak. Denera ia 70 lagun bilduko dira zati honetan, eta «gehien gustatu zaizkigun piezak, eta era berean, abesbatzaren garai bakoitzean adierazgarrienak izan direnak abestuko ditugu». Beraz, bigarren

zatiaren denetarik izango da entzungai, polifonia, euskal folklorea... eta guztiak *a capella* abestuak.

Jendeak «ilusio handiarekin» hartu duela parte dio abesbatzaren zuzendariak. «Askok ziren abesbatza aspalditutzi zutenak, baina egoitsu etorri dira entsegetara, eta horrek asko poztu nau; oso polita izan da guztiak elkartzea, eta horietatik asko izango dira abestu ez

baina ondorengo afarira joango direnak».

Abesbatza Lehiaketaren aurkezpena

Kontzertuaren baitan, halaber, 40. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa eta aurtengo kartela aurkeztuko dute. Borja Goikoetxea izan da kartela egitearen ardura izan duena.

ABESBATZAREN IBILBIDEAREN NONDIK NORAKOAK

1983. urtean sortu zen Hodeiertz abesbatza, eta urte hauetan guztietan, «kontzertuetan erakutsitako kalitateak, zaindutako soinuk eta egitarauaren originaltasunak» nabarmendu du. Hala, abesbatzak hainbat lehenengo sari lortu ditu nazio mailako nahiz nazioarteko lehiaketetan. Horien artean, aipatzekoa da Varnako (Bulgaria) Sari Nagusia 1991ean. 1996ean Sydneyko Concert Hallean hartu zuen parte, eta 2003an Goriziako (Italia) Nazioarteko Lehiaketan hirugarren saria eskuratu zuen.

Hainbat abesbatza lehiaketatan hartu dute parte, eta 2006ko apirilean, esaterako, Indian bira bat burutu zuen, bertako gobernuak gonbidatuta. Parte hartu duen azkena, aurtur izan da, Mariborko (Eslovenia) 9. Abesbatza Lehiaketan.

Diskografiari dagokionez, Javier Bustoren *Missa Brevis* eta *Missa pro defunctis*-en grabazioak dira aipatzekoak, eta baita, Nicolas Bacriren *Ilkitasunaren ortzadarra* eta *Urnara* ere.

1985. urtetik Enrique Azurza da abesbatzaren zuzendaria. Era berean, Azurza, 1999tik Euskal Herriko Unibertsitateko kororearen zuzendari ere bada. 97an Kea taldea sortu zuen, eta 91ean zuzendari onenaren saria jaso zuen Varnako Abesbatza Lehiaketan.

Probintziako 39. Abelgorri Lehiaketa egingo dute bihar, Ferialekuan

Tolosa » Sei talde desberdinetan eta banatuko dira abereak; hainbat sari emango dituzte irabazleentzat.

ERREDAKZIOA

Urteroko moduan, ganaduek hartuko dute bihar Ferialekua, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Tolosako Udalak eta Kutzak antolatuta, Probintziako 39. Abelgorri Lehiaketa izango baita.

Abereak sei talde nagusitan banatuko dira. Lehenengoan, Suitzar arrazakoak; bigarrenean, Frisoiak; hirugarrenean, Pirenaikak; laugarrenean, Blondak; bosgarrenean, Limousinak, eta azkenik, Txarrolsa arrazakoak. Bestalde, multzo bakoitza zenbait ataletan banaturik egongo da.

Lehiaketa bukatu ondoren, bost bigara zozketatuko dira, liburu genealogikoetan azienda izena emanda dutenen eta Ferialekuan dauden ganaduzaleen artean. Lehiaketatik kanpo, Gipuzkoan jaio eta hazitako bigantxak jarriko dira salgai azokan, enkante bidez.



Pasa den urteko Abelgorri Lehiaketako une bat. ESTI EZEBIZA

Hala, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Tolosako Udalak 150 eta 300 euro bitarteko diru laguntza emango du buru bakoitzeko.

Lehiaketan parte hartu ahal izateko, 08:00ak baino lehen eraman beharko dira abelgorriak. Eta honako osasun-agiriak izan beharko dituzte: osasun kalifikazioa indarrean daukaten aziendako ustiatuegiak izan beharko dute, eta osasun-keta, gehienez ere, hilabete bat lehenago egin izanaren ziurtagiria erakutsi beharko dute. Horretaz gain, soinean izan beharko dute, aberearen jatorrizko eta osasuna-


ren gida. Izena eman ahal izateko, pasaporte edo DIBA ere beharrezkoak izango da.

Atal bakoitzeko sariak ondorengoak izango dira: Lehenengoarentzat 250 euro eta garaikurra, bigarrenarentzat 215 euro eta garaikurra eta gainontzekoentzat 180 euro. Horretaz gain, erraperik onenarentzat 250 euroko saria izango da, Aberekin-eko haziz sortutako kume emerik onenak 250 euro, Pirenaika arrazako bururik egokiena 250 euro, eta etekin handiena eman duenak 250 euro jasoko du.

Adimen urritasuna dutenekin boluntario bezala aritzeko

ERREDAKZIOA

Txolarteak asteburuetan adimen urritasuna duten pertsonak boluntarioen laguntzaz elkartzen diren denboralibrekotaldeak dira, Atzegiren baitakoak. Hala, Tolosako Txolarteko boluntarioak larunbatero 3 orduz elkartzen dira, hainbat ekintzatan parte hartuz. Boluntario izateko 943 42 39 42 telefono zenbakira deitu behar dute interesatuek.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



13°
11°

GOIZA: 13°
ARRATS: 11°
BEROENA: 14°
HOTZENA: 10°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 034. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Ugarte.** Errosario jaien hasiera: 20:30ean kanpai jotze eta suziariak, 21:00etan herri afaria Aitzol Barandiaran, Uxue Alberdi eta Naikari Gabilondo bertsoariekin, ondoren trikitixa Saioa, Aitziber eta Letxurdiorekin; atsedendaldian toka leihaketa.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Iñigo Agirre gitarrajole tolosarraren kontzertua 19:30ean Aranburu Jauregian eta ondoren Sükrü Karakus pintoreak SOS Arrazakeria-ri emandako bi artelan enkartean jarriko dira.
■ **Amezketeta.** Elkarretaratzea Amezketako plazan, azken ilegaltzioen aurrean, 19:30ean.

Zinema

■ **Tolosa.** *Street dance* Leidor aretoan: gaur 22:30ean eta bihar eta etzi 17:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutilloa, A. M. San Martiri, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.



Euskararen aldeko buzoi bat gehiago

TOLOSA ■ Eguzkiak ere ez zuen festa galdu pasa den igandean Etxebarrin (Lizarratik gertu dagoen herrian). Izan ere, bertan, Euskaraz Bizi proiektuaren baitan, buzoi bat jarri zuten Laskorain ikastolakoek, Atarrabia, Gasteiz eta Lizarrako lagunekin batera. «Urbasaz gozatuz, Azantzako Haitzan Lizarrako lagunek aurrez ezarritako plakaren inguruan hemezor-

tzigarren urtez elkarrekin omendu genituen *Argitxo* eta Euskaraz Bizi proiektua», azaldu dute Laskorain ikastolatik. Ondoren, Larraintzako aterpean hamaiketako ederra eskaini zieten Nafarroako lagunek. 150 lagun elkartu arren, ez zen jan eta edatekorik falta izan. Euskararen aldeko konpromisoa berritsi zuten, beraz. HITZA

A Agurrak



Urte askoan!

Ane Lopetegi Arrue (Tolosa).
Gaur urtebete. Zorionak etxekoan partetik, eta Jon eta Aitorren partetik bereziki.

PURRITX, PORRITX
eta MARIHOTATS

DVD berria
etxeko txikiak
jolesteko

PANPINAK



DVDa
(posterra opari)
18€



Panpina bakoitza
(txapa opari)
20€



Egin eskaria amaitu baino lehen
902-82 02 01 edo harpidetza@hitza.info
adierazi harpidedun kodea

hitza info

